

2014ko IRAILAREN 29ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILTZARRA

Herriko kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, 2014ko irailaren 29an, astelehenez, gaueko 20:00etan.

Hor ziren: Vincent Bru jaun Auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino anderea, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorria jakinarazi zutenak: Henri Saint Jean jauna, axuanta, Corinne Othatcegy anderea, herriko kontseilaria.

Ahalordea: St Jean jaunak jaun Auzapezari, Othatcegy andereak Noblia andereari.

1 – Bilkura idazkariaren izendatzea.

Aho batez, hor zirenek Argitxu HIRIGOYEN anderea bilkura idazkari hautatu dute.

2 – Azken biltzarraren bilkura-agiriaren onartzea.

Jaun Auzapezak adierazten du A. Hiriart-Urruty andereak eta R. Barbier jaunak egin zituzten oharrak konduan hartuak izan direla, eta Herriko kontseiluari proposatzen dio azken biltzarraren bilkura-agiria onar dezan. Bilkura-agiri hori aho batez onartua da.

Gai zerrendatik kendua izan den puntua.

Jaun Auzapezak bere kideei jakinarazten du 4. puntua gai zerrendatik kendua dela. Hain zuzen, AVAP baten xutik ezartzeko eta PLUaren berrikuste orokorraren obratzeko, eskaintza deialdiaren batzordea egun bildu da kolektibitatearen laguntzaile izanen den ikerketa bulegoa hautatu beharrez gutun-azalen idekitzeko. Eskaintza deialdiaren batzordeak ez du erabakirik hartu, hiru kabinetek eman dituzten dokumentueri buruz xehetasunak eskatzeko asmoz, eta batzordeak horien proposamenen edukia ezagutu nahian kabineteen galdezkatzea deliberatu du. Heldu den urriaren 21ko, goizeko 9ak eta erdietan, bigarren bilkura bat programatua da.

3 – Kanbo Beherean etxe erostea.

Jaun Auzapezak jakinarazten du H. Saint Jean Medikiak Kanbo Behereko kartierran arte eskulangintza garatzeko ideia iradoki zuela, ekonomikoki eta sozialki auzo horren bizkortzeko asmoz. Bi leku artista eta aktibitate horien esku ezarriak izan dira: Burlazteia eta artista talde bati alokatu bastimendu pribatu bat. Beste presuna batzuk horieri juntatu nahi dute.

“Courant d’air” izeneko bastimendua saltzeko zela jakinik, Herriko Etxeak eraikuntza horren zati baten eskuratzeko interesa erakutsi du. Bilkura huntako deiarekin batera, kontseilari bakoitzari igorria izan zaion planoan agertzen den bezala, bastimendu hori hiru partetan zatitua izan da. Hiru mailatan banatua, zabalera osoa 216,29 metro karratukoa da:

- Etxe behekoa: 66,64 m²
- 1. estaia: 72,02 m²
- Teilatupea: 77,63 m².

Jabearekin elkarretaratze bat izan da, bai eta herriko kontseilari batzuek bastimendua bisitatu dute ere, eta kolektibitatea etxe horren jabe bilaka dadin interesgarria iruditu zaigu.

Lehen sal-prezioa 180 000 eurokoa zen. Sal-prezio horren apaltzeko negoziazio bat abiatu da, eta akordio batetara heldu gira 100 000 euroko hein batean.

Herriak Jabegoaren iritzia eskatu du, eta joan den agorrilaren 27an igorri letraren arabera, horrek ihardetsi du 100 000 euroko sal-prezioari buruz ez zuela oharpen berezirik egiteko.

Jaun Auzapezak adierazten du aurtikia izan behar den Ste Marie etxea, joste aktibitate batzuentzat epe bateko okupatzen duen emazte taldea, bastimendu hortan aterbetua izaiten ahalko dela.

Aktibitate berri horri esker, turista eta kuristek kartier hori deskubrituko lukete, herriak eman nahi dion funtzioari ihardetsiz.

Jaun Auzapezak adierazten du Simon jaunari gainera lur eremu bat erosi nahi diola, aparkaleku baten egiteko, horrela auzoko aparkatzeko lekuak emendatuko baitira.

A. Hiriart-Urruty andereak, Kanbo Behereko bastimendua zer estatutan den galdegiten du.

Jaun Auzapezak obra larria eta teilatua estatu onean direla ihardesten dio. Duela hiru edo lau urte, parte hortan jendea bizi zen oraino.

N. Aiçaguerre andereak obren gastuen zenbatzea egina zenez galdegiten du.

Jaun Auzapezak parte hori etxebizitza bezala antolatzea ez dela xedeetan zehazten du, ofiziale bokazioa duelako. Horren lekuko “Burlazteia” etxean egina izan dena aipatzen du, ezin ukatuzko kausipena, herriak gastuetan parte hartu duela oroitaraziz. “Courant d’Air” egoitza erabiliko duten egoiliarrekin molde berdinean jokatu da.

A. Hiriart-Urruty andereak “Burlazteia” osoki baliatua denez galdegiten du.

Jaun Auzapezak ezetz ihardesten dio. Obra batzuk egitekoak dira, eta kohabitazio arazoak badira Karanbab’art eta Kanbo Behereko besta komite zabalduaren artean.

Ph. Bacardatz jaunak ondasun hori uzten duten bi jabekideak zoin diren galdegiten du.

Jaun Auzapezak beste presuna batekin elkartua den eta Uztaritzen bizi den promotore bat dela adierazten du, Michel Duboy jauna hain zuzen, eta bastimendu hori hiru zatitan saltzea erabaki dutela azpimarratzen du.

Ph. Bacardatz jaunak jabekidetzaren arloan obra batzuk egin beharko direnez galdegiten du.

Jaun Auzapezak argindar kontagailuak kanpoan direla zehazten du, eta beste bi parteen faboretan den zorra azpimarratu behar da.

Ph. Bacardatz jaunak bost urtez herria ez zela jabetze horrek interesatua ohartarazten du, haatik gaur egun bai. Arrazoinak zoin diren galdegiten du.

Jaun Auzapezak H. Saint Jean Medikuak Kanbo Behereko kartierran ofiziale gintza garatzeko ideia aipatu zuela ihardesten dio. Parada hortaz baliatuz, herriak jabetze hori egin dezan baliagarri iruditu zaigu, kolektibitatearen nahia aktibitate horren laguntzea baita. Ph. Bacardatz Jaunak obra batzuk ez direnez teiltupean egin behar galdegiten du.

Jaun Auzapezak teiltupea biltegi bezala erabilia izanen dela zehazten dio, bai eta publikoa ez dela eremu hortan sartzen ahalko.

P. Michelena jaunak auzo bat ofiziale gintzaren medio berpizteko xedea ideia ona dela kausitzen du. Proiektu bat aurkeztua dela ohartarazten du, herriak erosi nahi duen bastimendu batekin, haatik hunen obren gastua ez delarik zenbatu. Elekrika, eskatuak diren segurtasun arauekin, berriz egin behar da. Beste bastimendu batzuek zaharberitze obra batzuk beharrezkoak dituzte, hala nola Assantza etxeak, osasun eta termalismoaren etxeak, Ste Marie lehengo lantegiek; xede horiek ere gogoetatu behar lirateke. Kargualdi huntan inbestimenduzko obren plano bat pentsatua denez galdegiten du.

Jaun Auzapezak Kanbo Behereko bokazio hori lagundu nahi bada, berriz gertatuko ez diren paradak hartu behar direla ihardesten du. Laborde etxea salgai zela jakin duenean, Herriko kontseiluari segidan aipatu dio. Assantza etxeari buruz proiektu bat bazen, eta hunen burura eramateko, itxura txarrean zegoen Laborde etxea herriak behar zuen erosi. Promotore bat Labordetiarrekin negoziatzeko prest zen. Prentsa saltegiaren lekuz aldatzeko, geroan antolaketa baten apailatzeko etxe horren jabe izaita baitezpadakoa zen.

Elekrika arauen araberakoa ezartzeko, Jaun Auzapezak obrak herriko elektrikariak eginen dituela zehazten du.

Assantza etxean eginen diren obrak urte bat baino gehiagotan eginak izanen dira.

Eraikin horrek 750 metro karratuko azalera du. Kanboarrek erakustokiaren bisita egiteko ahalmena ukan dezaten, behere parte irekitzea garrantzitsua da.

Osasun etxeari dagokionez, gogoeta bat bideratzen ari da eraikin hori beti osasun etxe bezala erabilia izan behar den jakiteko.

N. Aïçaguerre andreak iraila bukaerako erantzuna eman behar zela azpimarratzen du.

Jaun Auzapezak erran horiek baieztatzen ditu eta erabaki baten hartzeko erantzunaren beha dela zehazten du. 2. estaian apartamendu bat izanen dela jakinarazten du. Behereko parteen eta lehen estaiaren antolaketa 2015. urtean eta ondokoetan eginak izanen dira.

Hiriart-Urruty andreak zoin baldintzetan erabiltzen ahalko den bai eta alokairu bat izanen denez eskatzen du.

Jaun Auzapezak dio Burlazteia Karaban'art elkarteen esku uztea biziki untsa pasatu dela. Alokairu saria urtero 360 eurokoa da. "Courant d'Air" eraikinaren alokairu saria doi bat goragokoa izanen da, hedadura zabalagoa delako. Eraikin hortan lehenik nor aterbetzen ahalko den jakin beharko da, bai eta epe labur edo ertainean zoin obra egin beharko den.

Ph. Bacardatz jaunak eraikin horrek publikoa errezebitzen badu segurtasun arauen arabera delako seinalatzen du. Jaun Auzapezak baiezko erantzuna luzatzen dio.

Ph. Bacardatz jaunak “Courant d’Air” eraikinean beraz obra batzuk egitekoak direla dio. Jaun Auzapezak ezetz ihardesten du. Karaban’arteko kideek Burlazteian obra asko berek egin dituzte, Herriko Etxearen baimenarekin.

A. Hiriart-Urruty andereak lehenik Assantza etxea zaharberritzea hobe dela dio, hezetasun arazoak direlako eta obrak andeatzen ari direlako.

Jaun Auzapezak Poupel jaunaren jabegoan ziren obrak ez direla andeatzen ari erraiten du. Leku hori obrak lehen kontserbatuak ziren tokia baino egokiagoa da. Muble batzuk erosiak izan dira, hobekuntza batzuk oraindik egin beharrik dira. Hezetasunaren kentzeko negu huntan berogailu bat ezarria izanen da.

Ph. Bacardatz Jaunak “Courant d’Air” eraikina ez dela lehenagotik erosi izan deitoratzen du, promotoreak hiru zati eginak zituela eta.

Jaun Auzapezak eroste saria orain interesgarria dela zehazten du, lehen aldiz ez. Gaur egun, herriak eraikin horren erostea arrazoin du.

Jaun Auzapezak bozkatzea galdegiten du.

“Courant d’air” etxearen parte baten erostea onartua izan da. Bozkatu ez dutenak: A. Hiriart-Urruty anderea, Ph. Bacardatz jauna, N. Aïçaguerre anderea, P. Michelena jauna.

4 – PLUaren berrikuste orokorra eta AVAP baten xutik ezartzea: ikerketa bulegoaren izendatzea.

Pundu hau gai zerrendatik kendua da.

5 – AVAPeko tokiko batzordekideen izendatzea.

Jaun auzapezak 2010ko uztailaren 12ko legea eta 2012ko martxoaren 2ko zirkularra oroitazten ditu, arkitektura eta ondarea baloratzeko eremuari buruzkoak. 2014ko uztailaren 21ko deliberoaren arabera, Herriko kontseiluak AVAP baten ikerketa bultzatzea erabaki du, bai eta AVAPeko tokiko batzorde baten sortzea, hola osatua litekeena:

- Lurralde kolektibitatearen ordezkariak (5-8 presuna)
- Prefeta edo bere ordezkaria
- Ingurumen, Antolakuntza eta Etxebizitzaren Eskualdeko Zuzendaria edo bere ordezkaria,
- Kultur Aferen Eskualdeko Zuzendaria edo bere ordezkaria
- Bai eta presuna adituak, ondarearen zaintzaile gisa alde batetik, eta bestetik hunkituak diren interes ekonomikoen kondu.

Jaun Auzapezak hautetsien ordezkari bezala presuna hauek izendatzea proposatzen du:

- Frédéric BARDIN
- Eliane AIZPURU
- Peio ETCHELECU
- Jean-Noël MAGIS

- Bernadette JOUGLEUX
- Patrice DOR
- Jean-Jacques LASSUS

eta oposizioari ordezkari baten izendatzea galdegiten du.

Estatuaren ordezkari bezala izendatuak izan dira:

Prefetarentzat: SOLABERRIETA C. Anderea – DDTM / DTB PB

DREALarentzat: Séverine PUCHEU Anderea

DRACarentzat : AYMAR Jauna

Presuna aditu bezala izendatuak dira:

Ondare sailaren izenean

- Christian PERRET Jauna
- Robert Poulou Jauna

Tokiko interes ekonomikoen izenean

- Marcel NOBLIA Jauna
- Christophe PUYODEBAT Jauna.

Jaun auzapezak Ramuntxo Larramendy merkataritza elkartearen lehendakaria galdegina zuela zehazten du, baina hunek ezezko ihardespena emanik, Christophe Puyodebat lehendakariordeari kargu hori proposatu dio eta hunek onartu du.

P. Michelenak bere taldeak bozken %27 erdietsi duela oroitarazten du, eta “atenako demokrazia” jarraikiz, oposizioak bi eserleku behar lituzkeela azpimarratzen du.

Jaun auzapezak Kanborentzat ez dela eredu bat ihardesten dio. Beste herri batzordeentzat bezala, proporzionaltasunaren araua gauzatu duela zehazten du.

Bacardatz jaunak adierazten du Herriko kontseiluko azken bilkuran, jaun Auzapezak erran zuela “jauntto on gisa, bi leku uzten zituela”, eta ondorioz, bere lehen hitza jaten zuela. A. Hiriart-Urruty andereak dio: “zure hitza jaten duzu”.

F. Bardin jaunaren ustez, bi kide aipatu zirela ez zaio iruditzen.

Jaun auzapezak erabaki hori taldean hartua izan dela zehazten du.

A. Hiriart-Urruty andereak batzordekide izan nahi duela adierazten du.

A. Hiriart-Urruty andereak uztaileko 21ko bilkuraren agiria ez denez ukaiten ahal galdegiten du. “Demokrazia froga bat da oraino” dio.

Jaun auzapezak « demokrazia berek duten ikusmoldea » ihardesten dio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du.

Aho batez, herriko kontseiluak AVAPEko tokiko batzordekide bezala lurraldeko ordezkari bezala izendatzen du:

- Frédéric BARDIN
- Eliane AIZPURU

- Bernadette JOUGLEUX
- Patrice DOR

- Peio ETCHELECU
- Jean-Noël MAGIS

- Jean-Jacques LASSUS
- Argitxu HIRIART-URRUTY

6 – Ikerketa geoteknikoa Sept Chênes bidean eta Pascaleku bidean: ikerketa bulegoaren izendatzea.

Jaun auzapezak bide eta euri ur mailan, obra handiak egin beharrak direla Sept Chênes eta Pascaleku bideetan adierazten du. Bide bazterren egoera eta egonkortasuna, ezpona eta lauzaden egitura ezagutzeko asmoz, ikerketa geoteknikoak bideratu behar dira. Lau ikerketa bulego kontsultatuak izan dira: Biarritzeko FONDASOL, Lehuntzeko GINGER CEBTP, Baionako ECR eta Urruñako CGA bulegoak.

Hiru ikerketa bulegok ihardetsi dute:

- ECR bulegoak, 14394 euroko gastuarentzat zerg guziak barne, 4 asteko epearekin,
- FONDASOL bulegoak, 16110 euroko gastuarentzat zerga guziak barne, 6 aste eta erdiko epearekin,
- GINGER CEBTP bulegoak, 17040 euroko gastuarentzat zerga guziak barne, 9 asteko epearekin.

Eskaintzak aztertu ondoren, ERC ikerketa bulegoak eskaintza hobereana egin duela bai prezio eta epe aldetik ohargarri da. Betebeharrak erabat errespetatuak direnez, batzordeak eskaintza hori onartzea proposatzen du.

Aho batez, Herriko kontseiluak ERC ikerketa bulegoa hartzea Sept Chênes eta Pascaleku bideetan geoteknika ikerketak egitea erabakitzen du.

7 – Hiri Bihotza- 4. zatia: egitarauaren onartzea eta diru laguntza eskaerak.

Bere taldearen izenean, jaun Auzapezak adierazten du hastapen batean 2015an obratu beharra zen lan xede hori urte batez gibelatua izanzen dela. Lan xede horrek elizaren auzoa konduan hartzen du, eta hunek “Hiri Bihotza” programa amaitzen du, hunen lehen zatia izan delarik Trinketa karrika eta Tilleuls hiribidea antolatzea, bigarrena, Terrasses karrika, eta hirugarrena, Chiquito karrika, Bota karrika eta pilota plaza gunea.

Alta, joan den uztailaren 14ean, Kanbok uholde larriak jasan behar izan zituen, ofiziokoak, saltzaileak, partikularrak, eta gaur egun ofizialeak, hotel-jatetxeetako nagusiak zailtasunetan ezarri baitituzte.

Terrazen karrikako saltzaileek bidea lauzpabost hilabetez biziki tratatua izanzen zela seinalatu dute obregatik hetsiko baitute, oinezkoak pasatzen ahalko badira ere. Uholdeetatik landa oraino zigortuak izateak kezkatzen ditu.

Auzapez jaunari haien argumentuak arras zentzuzkoak iruditu zaizkio, eta presatuak ez ziren obrak gibelatu behar direla pentsatu du. Alabaina, elizako plaza bere aitzinekoak, Laurent Duhartek jadanik berritua izan zen.

Obra horiek 2016 urtera geroraturaz, auzapez jaunak bi abantaila osagarri aipatzen ditu: Kanboko saltegien defentsa, Souberbielle eta Iguzkian auzoetako bideen arraberritzeko galde kopuru handiaz gain. Elizako plazako aitzinetik pentsatu buxetaren funtsezko zati bat bi auzo horietako baliatzea erabakia izan da.

Beste argumentu bat: Sylviane Alaux diputatu andereak bere parlamentu erreserbaren zati bat herriko inbestizamendu programa batentzat erabili nahi du. Obrak heldu den urtarrilean hasi balira, ez gintuen laguntzen ahalko. Izan ere, arrapostua uztailan emanen da, eta obrak ez dira lehenago hasi behar. 4. zatia 2016 urtera gibelatuz geroz, bere laguntza galdatzen ahalko da.

Auzapez jaunak taldearen izenean, eta behar bada Herriko kontseiluarenean ere, diputatu andeari Estatuaren laguntza parlamentu erreserbaren kondu galda dezan jakinaraztea proposatzen du, laugarren zatiko obrak 2016an hasita.

Bestalde, Kontseilu orokorrari erabaki hori aktaraztea komeni da.

Hiri Bihotza operazioaren laugarren zatiak parte finko bat badu: Elizako perimetroa Terrazen karrikarekin, elizako plazarekin eta St Laurent karrikarekin, eta baldintzazko parte bat, hirugarren zatiko lanetan eginak izan ez diren eta Chiquito karrika Xerri Karrikari juntatzen dituzten lau etxartek osatzen dutena.

Buxeta 583 336,42 eurotan estimatzen da zergarik gabe, zoini obralaritza emendatu behar baitaio, hots 618 336 euroko diru zama zergarik gabe.

Auzapez jaunak anitz jende ibiltzen den elizaren gibelaldea hobetu beharra seinalatzen du.

Herriko kontseilua laugarren zatiko obren programa onar dezan galdegiten zaio, eta Estatuaren diru laguntza galdatzea parlamentu erreserbaren kondu, FISACena eta Kontseilu orokorrarena lurralde kontratuaren barnean, 90 000 eurotan finkatua baita.

Aho batez onartua.

8 – Argiztapen publikoa: gaueko argiztapen baldintzen aldatzea.

V. Goytino jaunak Herriko kontseiluari herriko eremuan gaueko argiztapen baldintzen aldatzeko galdea egiten dio, gaueko kutsaduraren ttipitzeko, energia eta ondorioz dirua aurrezteko.

Baden argiztapen publikoari hobekuntzak ekarri behar zaizkio. Inbestizamendu handiagoak baitezpadakoak dira gunee batzuetan, baina orokorrean ez dira hainbestekoak.

Orain, bi argietarik bat itzalia da, horrek 7 000 euroko aurrezteka ekarri baitu. Lanek segituko dute, herriaren % 60ean jadanik aldaketak eginak dira, helburua % 80era heltzea delarik.

Argiztapenaren hobetze lan bat eginen da ere, guti argitzen eta anitz gosta diren argiak ordezkatzuz.

Pirinio Atlantikoetako departamenduko energia sindikatuak argiztapen publikoaren ordutegiari dagokion erabaki baten hartzea galdatzen dio. Kanbon argiztapen publikoaren baldintzak beherago definituak diren baldintzetan 2014ko azaroaren lehenetik aitzina aldatuak izanen direla adierazten duen erabaki proiektua gauzatzen du. Aldaketa horiek betikoak dira.

Argiztapen publikoa egunero molde huntan itzaliko da: bi karrika-argietarik bat itzaliko da gauerdia eta erdietatik landa, argi piztu bat itzali batekin aldizkatuz. Alabaina, eta segurtasunari dagozkion arrazoinengatik, bidegurutzeetako karrika-argiak gau osoan pizturik atxikiko dira. Segurtasun arrazoinak ere direla eta, herri barneko eta eskoletako guneeak goizeko 6:00 orenetatik aitzina berriz piztuko dira. Ur onetara heltzeko bideko argiztapena, biribilgunetik landakoa, ur onen etxea hetsirik egon bitartean hila izanen da.

Erabakia herriko etxean afixatuko da, eta herri afixatzearen bidez, herriko aldizkarian baita herriko webgunean agertuz ere jakinaraziko da.

Auzapen jaunak hauteskunde kanpaina denboran oinezkoen bideetako segurtasuna azkartzea erabakia izan zela zehazten du. Hortako, oinezkoendako bideak karrika-argien ondoan kokatu behar dira eta argi gehiago ezarri behar dira. Herri barnean, oinezkoen zeharkatzeko lekuak seinlatuak izan behar dira.

N. Aïçaguerre andereak Jondoni Josepe parke aitzinean goregi diren sail liliztatuek ikuspena, bereziki zeharkatu nahi duten oinezkoak ikusten ahal ez dituzten auto gidariena tratatzeak sortzen duen lanjerra seinalatzen du.

Auzapez jaunak herriak lurralde kontratuaren barnean herri eraikinetako energia aurrezteari buruzko dossier bat pausatu duela erraiten du. Horri pentsatu duen herri bakarra da. Lan horiek herriko eraikinen energia gastuen ttipitzeko programatuak dira.

V. Goytino jaunak mementoan urratsa hiru bastimendutan lanean ari den bulego berezitu batek lagundua dela zehazten du. Maila hortan, eskolak akastunak dira.

Auzapen jaunak obrak lehenik igerilekuan eta herriko etxean hasi direla adierazten du.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

Auzapez jaunak Vincent Goytino eskertzen du energia aurrezte mailan egin duen lan guziarentzat.

9 – Errobi Herri elkargoa – CLECT: ordezkarien izendatzea.

Auzapez jaunak bere lankideeri 2011ko urtarrilaren lehenean Zerga sistema Profesional Bakarra (FPU) ezarriz geroztik, Errobi Herri elkargoaren eta kide diren herrien artean karguen tokialdatzeen balioztatzeaz arduratzen den tokiko batzorde bat sortua izan zela jakinarazten du, Kargu Tokialdatzeen Balioztatze Tokiko Batzordea (CLECT).

2011ko martxoaren 11ko Herriko kontseiluaren deliberoaren bidez finkatu zen hunen osaketa:

- herrika ordezkari bat; ordezkari gehigarri bat 4 000 biztanlez gaineko herrirentzat eta bat 4 000 biztanleka;
- CLECTeko kide den ordezkari titular bakotxarentzat, ordezkari orde baten izendatzea.

CLECTen zeregina, Zerga Kode Orokorren 1609 nonies C artikulua antolamenduekin bat eginez, herriek esleitu eskumeneri dagokien herriarteko partaidetzaren zeregina establezimendu publikoari eman diru kargu osoaren zenbatekoaren balioztatzea da.

2014ko martxoko tokiko bozen ondotik, Auzapez jaunak biltzarra agintaldi berriko batzorde horren berri beharra jakinarazten dio, 2011n izendatu batzordekideen kargualdia bururatua den neurrian.

CLECTen osaketa arauak ikusiz, Kanbo herriak kide titular gisa bi ordezkari izendatu behar ditu eta beste bi ordezkari orde gisa.

Auzapez jaunak ondokoak izendatzea proposatzen du:

- Auzapez jauna eta Christian DEVEZE, kide titular bezala;
- Frédéric Bardin eta Eliane Aizpuru, ordezkoko bezala.

P. Michelena jaunak 5. puntuarentzat egin ohar bera egiten du, eta zinezko demokraziaren arabera, lau pertsona baizik izendatu behar ez direnez geroz, kideetarik bat oposiziokoa izan behar litzatekeela estimatzen du.

V. Goytino jaunak titularrak eta ordezkokoak talde berekoak izan behar direla adierazten du.

Hiriart-Urruty anderearen erantzuna: « baina gutaz biziki beldur zara »!

Ph. Bacardatz jaunak teknikoegia denez eskatzen du.

Auzapez jauna ordezkarietarik bat bere tokiaren uzteko prest denez galdatzen du.

F. Bardin jauna P. Michelena jaunari bere tokiaren uzteko ados da.

Eztabaidatu eta deliberatu ondoan, Ph. Bacardatz hautagai baita, Herriko kontseiluak CLECTen kide gisa hauek izendatzen ditu:

- Auzapez jauna eta Christian DEVEZE, kide titular bezala;
- Eliane Aizpuru eta Philippe Bacardatz ordezkoko bezala.

Onartua. C. Jenvrin jaunak kontra bozkutzen du.

10 – Joan-jile baten plantan ezartzeko eta prezioaren finkatzeko sail baten sortzea.

B. Jogleux andereak herrian hiru hilabetez entsegu gida autobus joan-jile bat ezarriko dela erraiten du, 2014ko urriaren 6tik abenduaren 27 arte. Hiru linea pentsatuak dira herri barnetik urrun diren auzoetaraino joateko, astelehen, ostiral, larunbat goiz eta asteazken arratsaldetan ibiliko direnak.

Hortako, Herriko kontseiluari irabazien kudeaketa sail baten sortzea proposatzen zaio, herriko diruzain den Martin andereak alde dela erran duela, bidaia bakoitz 0,50 euroko prezioarentzat.

Ph. Bacardatzek zoin ibilgailu erabiliko den galdatzen du.

B. Jogleux andereak herriko autobusa izanen dela adierazten du.

N. Aïçaguerre andereak uste du zerbitzu horren entseatzeko hiru hilabeteko epea doi bat laburregia dela.

B. Jogleux andereak dio ezetz, epe hori Eguberri garaia izanen dela eta interesgarria baita.

N. Aïçaguerrek informazioa nola zabalduko den galdatzen du, jende guziek ez baitute internetik eta ondorioz herriko webgunea ezin baitute begiratu.

B. Jogleux andereak saltegietan esku-orriak banatuko direla zehazten du, eta herriko etxean, Turismo bulegoan eta zerbitzu etxean eskuragarri izanen direla. Prentsan artikulua bat agertuko da. Afixak ere ezarriko dira.

Ph. Bacardatzek haurrentzako prezio berezirik izanen denez galdatzen du. Dohainik izanen ote da?

Eztabaidatu ondoan, sei urtez petikako haurrentzat urririk uztea proposatzen da.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Aho batez, Herriko kontseiluak autobus joan-jilearen plantan ezartzeko irabazien sail baten sortzea erabakitzen du, bidaia batentzat 0,50 euroko prezioa finkatzea eta sei urte arteko haurrentzat urririk uztea.

Ph. Bacardatz jaunak bidaien aldetik entseguak izanen direnez galdatzen du.

B. Jogleux andereak baietz ihardesten dio.

11 – Asteko merkatua: ordainketa epeak.

B. Jogleux andereak lankideeri jakinarazten du 2000 urteko ekainaren 9ko deliberoaren bidez, Herriko kontseiluan asteko merkatuarendako toki eskubideen, ganer hustearen, baita bideetan gelditzeko baimen desberdineri lotu zorren altxatzeko irabazien sail baten sortzea erabaki zela. Bulego horrek egiaztatu ondoan, Herriko kontseiluari asteko merkatuko saltzaileen ordaintze epeeri buruz erabaki dezan galdatzen zaio.

B. Jogleux anderearen proposamena:

- pasaiako saltzaileentzat berehalako ordainketa,
- titularrentzat hilabetekako ordainketa,
- urteko harpidetzentzat hiruhileko ordainketa,
- pesta egunetan ordainketen altxatzerik ez.

Aho batez onartua.

12 – Mediateka: prezioak.

Mediatekako irabazien bulegoak egiaztatu ondoan, P. Lespade andereak, axuantordeak Herriko kontseiluari mediatekan ordainarazten diren prezio guzietan buruz betan deliberatzea galdatzen zaiola erraiten du, hauek direlarik:

Mediatekako harpidetza:

Kanboarrak edo Kanbon	Kanboarrak ez direnak	Turistak eta ur onetan
------------------------------	------------------------------	-------------------------------

bigarren etxebizitza bat dutenak		artatuak Luza daitekeen aste bateko izen emaita
Heldua: 12 euro urteka	Heldua: 17 euro urteka	Heldua: 2 euro asteka
Lizeoko ikaslea, estudiantea, langabetua edo oinarrizko laguntza sozialak hunkitzen dituen: 6 euro urteka	Lizeoko ikaslea, estudiantea, langabetua edo oinarrizko laguntza sozialak hunkitzen dituen: 6 euro urteka	
15 urtez petikakoak: dohainik	15 urtez petikakoak: dohainik	15 urtez petikakoak: dohainik
Ikasle taldea, Aisialdi zentrokoa, haurtzaindegikoa: dohainik	Ikasle taldea, Aisialdi zentrokoa, haurtzaindegikoa: 17 euro urteka	
Etxe haurtzaina (haurren arloan mugatua): dohainik	Etxe haurtzaina: 17 euro urteka	
Elkartea, arta etxea, zahar etxea: 12 euro urteka	Elkartea, arta etxea, zahar etxea: 17 euro urteka	
AIECKo kidea: dohainik	AIECKo kidea: dohainik	AIECKo kidea: dohainik
Bermea: /	Bermea: /	Bermea: 50 euro, egonaldi bukaeran itzulia mailegatu dokumentuak itzuli ondoan.

Fotokopia:

	A4	A3
Recto	0.20 €	0.25 €
Recto/verso	0.25 €	0.30 €

Inprimatzea A4: 0.20 € orrialdeka

« Kanboko mediateka » oihalezko zakua dokumentuen eramaiteko: 1 €

Bildumetatik kendu dokumentuen salmenta: 1 €

Beranta zorrak: 0,10 € dokumentu bakotx eta egun bakotx aitzinikusi itzultze egunaren ondotik 30 eguneko beranta baldin bada.

Aho batez onartua.

13 – « Estatutu arriskuak » asurantz: SMACL zerbitzuarekilako kontratuaren luzamena.

Zerbitzuen zuzendari orokorrak 2011ko azaroaren 14ko deliberoaren bidez langilegoaren estatutu mailako babes sozialari lotu finantza arriskuen kontra kolektibitatea segurtatzen duen SMACL Assurances konpainiarekilako merkatu bat adostu zela adierazten du. Merkatua hiru urteko epearentzat izenpetua zen, 2012ko urtarrilaren lehenean indarrean ezarria, 2014 urteko abenduaren 31 artekoa.

2013ko martxoaren 18ko Herriko kontseiluko deliberoaren bidez, Herriak bere izenean Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroari kolektibitatearentzat, alde batetik CNRACL

antolakundeko kide diren langileentzat, eta bestetik gaineratikoentzat babes sozial erregimenari lotu finantza arrisku guzien kontrako bi asurantzak kontraturen izenpeko egin beharreko merkatu prozedura bat egin zezan eskatu zion.

2013ko agorrilean, 3 urterentzat Kudeaketa Zentroari aurkeztu proposamenak Kanboko herriaren % 3,40ko tasako eskaintza bat aurkezten zuen, aurrekarien berriz hartzerik gabeko kontratu baten berme berak zituen, kapitalizazioan kudeatua (gertatzen ari ziren geldialdiak berriz haste kasuan salbu).

Proposamen hori nahikoa ez baitzen iduriz, herriak ez zuen kontratua bururat eraman nahi izan, eta kontratua SMACL enpresarekin segitzea erabaki, Kudeaketa Zentroaren kontsulta berri arte.

2014ko ekainaren 19an, Herriak SMACL Assurances konpainiarengana jo zuen asurantzak kontratua urte batez luzatzeko, erran nahi baitu 2015ko abenduaren 31 arte.

Asurantzak konpainiak kontratuari gehikuntza bat egin zion, oraingo kontratuaren ezaugarri berdinak dituen. Herriko kontseiluak Auzapezari gehigarri horren izenpetzeko baimena eman behar dio.

Auzapez jaunak Kontseiluari bere iritzia emateko galdea luzatzen dio.

Aho batez, Herriko kontseiluak Auzapezari SMACL konpainiarekilako gehigarri baten izenpetzeko baimena emaiten dio asurantzak kontratua urte batez luzatzeko, erran nahi baitu 2015eko abenduaren 31 arte.

14 – Musika irakaskuntza.

Auzapez jaunak erraiten du Herriko kontseiluak bi punduri buruzko erabakia hartu behar duela dio:

- a) Misio kargudunaren lan denboraren aldaketa;
- b) Izen emaitaren gustuaren parte baten ordaintzea.

a) Misio kargudunaren lan denboraren aldaketa.

Auzapez jaunak bere lankideeri oroitarazten die musika irakastearen eskumena Errobi Herri elkargoaren esku emana izan dela. Alabaina, herri batzuetan musika ez zen irakasten, edo Uztaritzen ez zen legearen arabera. Kanbok behar bezala segurtatzen zuen.

Herri elkargoak irakaskuntza hori Musikas elkartearen esku eman du, bere zaintzapean, eta Kontseilu orokorraren sustenguekin.

Horrek misio karguduna den Hérard jaunarentzat aldaketa bat ekartzen du, zoinen egoera Auzapez jaunak oroitarazten baitu. Zehazten du kontratupean izanik ere holako langile bat ez dela elkarte baten esku izaiten ahal. Horregatik, Hérard jaunari bi mugagabeko kontratu proposatu zaizkio, bata eskubide publikokoa, Kanboko herriari lotzen duena, eta zoinentzat jadanik duen kontratuari gehigarri bat eman behar zaion, bestea eskubide pribatukoa, Musikas elkartearekin.

Auzapez jaunak Hérard jaunak zuen soldataren maila bera atxikiko duela, herriak Musikas elkarteak ordaintzen ez dion zatia estaliz, eta Hérard jaunak galdatu bezala, hilabetean 200 euro gehiago ordaindua izanen da.

Auzapez jaunak proposamena biziki zuzena eta interesatuarentzat biziki interesgarria dela adierazten du.

Hérard jaunak Musikas elkartearentzat egin 15 oren eta erdiez gain, herriarentzat astean 4 oren eta erdi egiteko ados dela jakinarazi du.

Herriko kontseiluak Musikasekiko kontratua Hérard jaunarekin ere izenpetua baldin bada plantan ezarriko duen kontratu gehigarriari buruzko erabakia hartu behar du.

N. Aïçaguerrek kontratu berriek entseguzko epe bat kontuan hartzen dutenez eta kontratu berriak izenpetzeak erretretari buruz ez ote duenez kaltetuko galdegiten du.

Auzapez jaunak erantzuten dio kontratuak segidan hasiko direla, entseguzko eperik gabe, eta erretretarentzat ez dutela ondorio izpirik ukanen.

Hérard jaunari 15 eguneko epean bere erabakia eman dezan galdatuko zaio; hala ez balitz, kanporatze prozedura bat bidean ezarriko litzateke.

N. Aïçaguerre andereak pentsaketak egiteko epe bat utzi zaionez galdegiten du.

Auzapez jaunak dio baietz, eta orain bururapen epe bat finkatu behar dela.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Herriko kontseiluak Auzapez jauna Hérard jaunarekilako lan kontratuari gehigarriaren izenpetzeko baimena emaiten dio. Bozkatu ez dutenak: A. Hiriart-Urruty anderea, Ph. Bacardatz jauna, N. Aïçaguerre anderea, P. Michelena jauna.

b) Izen emaitte gustuaren parte baten ordaintzea.

Auzoko herri batzuekin konparatuz (Basusarri, Uztaritze, Ezpeleta), Kanboko herriak eskaini irakaskuntzaren kalitateari begira prezio apalegiak ordainarazten zituen: Urtean 180 euro. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrak egin azterketa baten arabera, departamenduko prezioa batez beste 200 eurokoa zen. Urtesaria 240 eurotan finkatua izan da. Ezpeletako herriak 280 € eta 300 € arteko prezioa pagarazten zuen.

Kanboko familientzat, prezioa 180 eurotik 240 eurora emendatzea biziki aldaketa handia da.

Auzapez jaunak adierazten du ikasleen burasoak errezibitu zituelarik, izena emaitteko diru laguntza bat eman nahi ziela erran zien, Kanboko ikasleentzat 60 euroko emendakinaren erdia herriak bere gain hartuz.

Hiriart-Urruty andereak herriko laguntzen emaitteko familia kozientea konduan hartua delako oharra egiten du. Galdegiten du hala izanen denez, bere iduriko burasoen irabaziak konduan hartu behar baitira.

Auzapez jaunak laguntza hori ohiz kanpokoa dela eta urte bateko bakarrik eskaintzen dela erantzuten dio. Inposatzen zaien musika irakaskuntza eskumen aldatzearen ondorioz burasoak egin behar duten indar hortan laguntzea da ideia. Sistema iraunkortzen balitz, irabazi ttipiko jendeen laguntzeko arras prest litzateke.

Auzapez jaunak zehazten du biltzar nagusiak ikasle burasoeri egin zitzaien proposamena dela, lehen aldikoz denak berdin tratatu behar zirela pentsatzen baitzuen.

Ph. Bacardatz jaunak emendatzea % 33koa delako oharra egiten du, heldu den urtean berriz emendatuko denez galdetuz.

Ch. Devèze jaunak dio orain ez duela gehiago herriak erabakitzen, eta orain arte Kanbon ordainarazten zen prezioa apalegia zela azpimarratzen du.

A. Hiriart-Urruty andereak pentsatzen du beste arlo batzuetan ere familiak lagundu beharko direla. Igerilekua aipatzen du, kolegioetan igerika ez dakiten haur batzu ikusten baititu.

P. Lespade andereak seinalatzen du alta haurrak eskolarekin pizinarra joaiten direla, eta igerika jakin beharko luketela.

Auzapez jaunak esku hartzen du erranez Kontseilu orokorraren politika igerilekuetako ordu tarteak faboratzea dela eta 6. eta 5. mailako haurrentzat baitezpadako egitea, ohartu baitira haur batzuek igerika ez zekitela.

N. Aiçaguerre andereak Kanbon zonbat haur badiren galdatzen du.

B. Jogleux andereak ihardesten du gaur egun 62 haur direla izena emana dutenak (jaz baino 5 gutiago), baina Kanbokoak zonbat diren ez dakiela.

Auzapez jaunak bozkaratzen du.

30 euroko diru laguntza onartua da. Bozkatu ez dutenak: A. Hiriart-Urruty anderea, Ph. Bacardatz jauna, N. Aiçaguerre anderea, P. Michelena jauna.

15 – Saneamendu lanak: Hazparne herriarekilako hitzarmena.

Ch. Devèze auzapezorde ordeak bere lankideeri Kanbo eta Hazparne herrien artean Hazparneko Urkoi auzoan eta Kanboko Chistartia bidean egin beharreko saneamendu obreri buruzko hitzarmen bat pasatzea proposatzen dio.

Izan ere, UC gune eraikigarri bat bada, zoinetan bi herritarrek saneamendu kolektiboari lotuak izan nahi duten. Alta, zati hori Hazparne herriak kudeatzen duen saneamendu kolektiboak baizik lantzen ahal ez du.

Lanak herriak eginen ditu, eta ondotik sare guziak Hazparneko herriari utziko zaizkio, horien mantentzeko eta dagokion zergaren altxatzeko ardura bere gain utziz.

Ch. Devèze jaunak saneamendu sareari lotzeko parte hartzea Kanboko herriak estaliko duela zehazten du.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluari hitzarmen horren izenpetzeko baimena galdatzen dio.

Aho batez onartua.

16 – Auzapezaren erabakien jakinaraztea.

Auzapezak oroitarazten du lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 2122-2 eta L.2122-23 artikuluen eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren deliberoaren arabera, 2014ko uztailaren 12tik irailaren 19 arteko herriko erosteko lehentasun eskubideari dagozkion ezezko erabakiak jakinarazten direla:

- Lur zama: 1
- Etxea: 6
- Apartamendua: 3
- Egoitza profesionala: 1

17 – Beste puntuak.

- Auzapez jaunak postak igorri gutun baten berri emaiten du, Kanboko bulegoa 2014ko urriaren 2tik abenduaren lehenera artean arraberritua izanen dela jakinarazten duena. 290 000 euroz gaineko inbestizamendua da. Posta zerbitzu hori biziki erabili da, eta Postak biziki indar handia egiten du publikoaren harreraren eta langileen lan baldintzen hobetzeko.
- Auzapez jaunak Patrice Dor-i hitza emaiten dio, Kanboko saltzaileen ekintzari ekarri laguntzari buruzko jakinarazte batentzat.

P. Dor jaunak joan den primaderan saltzaile eta ofizialeen merkataritza batasunaren urte hastapenez geroztikako bulego berriarekin lehen bilkura bat antolatu zela adierazten du, zoinen lehendakaria Ramuntxo Larramendy baita. Trukaketa horri esker, elkarteak antolatzen dituen animazioen aldetik herriak ekar zezakeen laguntza posibleari buruz gogoeta bat eraman ahal izan zen. Uztaileko uholdeetatik landa, agorri bukera bilkura bat izan zen merkataritza batasuneko bulegoarekin, Turismo bulegoko eta herriko ordezkari batzuekin, zoinen karietara hiru egitasmo aurkeztuak izan baitziren urte bukera plantan ezartzekoak, tokiko erosleriarenganako komunikazioa helburu:

- Xantazko kartari buruzko informazio helarazteko banderola batzuen pausatzea, herriak diruztatuak,
- Sud-Ouest egunkarian iragarki orri batzuek ezartzea, sei publizitateen gostuaren erdia herriak bere gain harturik,
- Sud-Ouestean Kanboko erakargarritasunari buruzko eta 160 saltegi dituela oroitarazteko iragarki handi bat aste komertzialaren prestatzeko, herriak osorik diruztaturik (herriko saltegi kopurua laurdenaz emendatu da azken bost urteetan, alabaina).

J. J. Lassus jaunak zehazten du ondoko herriko aldizkarian elkarteari artikulua bat dedikatuko zaiola.

Auzapez jaunak gehitzen du interneten ere ezarriko dela.

- Herriko kontseiluaren ondoko bilkurak: 2014ko azaroaren 3an astelehenarekin gaueko 8 orenetan, eta 2014ko abenduaren 15ean astelehenez gaueko 8etan.
- ALSH Astialdi zentroari eta haurtzaindegiari buruzko PowerPoint bat aurkeztuko da 2014ko urriaren 20ean gaueko 8etan Herriko kontseilu osoari.
- Ph. Bacardatz jaunak Arnaga etxearen bisita gidatuaren prezioa 9,20 eurokoa dela erraiten du, 7,20 eurokoa dela adierazia delarik.

M. Pontacq andereak oroitarazten du herriak audiofono batzu erostea erabaki duela eta amortizatu behar direla. Audiofonoen alokairua bi eurotan finkatua da. 9,20 euroko prezioak audiofonoaren alokatzea konduan hartzen du.

N. Aiçaguerre andereak galdegiten du audiofonorik gabeko bisita bat egitea posible denez.

Auzapez jaunak ihardesten dio operazioaren helburua bisita erosotasunez segitzeko ahala emaita dela.

- P. Michelenak eskola erritmo berrien plantan ezartzearen bilana zoin den eskatzen du.

E. Noblia andere axuantordeak erantzuten dio lehen mailako eskolako 164 ikasleatarik 145ek eskolaz kanpoko animazioetan (TAP) izena emana dutela, Kanbo beherean 26k izena eman dute eta 12k haurtzaindegian, Kanbo gaineko ama eskolan 90 haurretarik 65 eta 70 ikasleren artean dira haurtzaindegian.

- A. Hiriart-Urruty andereak Herriko kontseiluari « auzoak-berdeguneak » batzordearen bilkuran izan zen arazoa aipatzen duen joan den irailaren 12an helarazi gutuna oroitarazten dio, eta Jenvrin jaunak edo norbaitek erantzun nahi duenez galdetzen.

Auzapez jaunak, taldeburu gisa, bilkuran trukatu solasari buruz erantzuten du. Oposizioaren taldeak hitzordu bat galdatu zuela erraiten du, 24 orenen buruan eman ziona, eta lauak errezibitu ditu. Zehaztu die ez zuela batere erranekin bat egiten, eta puntu hori bere axuantekin aipatuko zuela. Ondoko asteazkenean arratseko 7etan beste dossier batentzat herriko etxean zen Ch. Devèze jaunarekin eta Jenvrin jaunarekin elkartu zen. « Afera hori behin betiko konpondua izan da. Ez da gehiago holako elerik izanen », adierazi du Auzapez jaunak.

Hiriart-Urruty andereak bigarren aldia zela ohartarazten du.

Auzapez jaunak erraiten du C. Jenvrin jaunari oroitarazi diola segurtasun batzordeentzat egiten duen lanaz satisfos dela oroitarazi diola. Deneri gertatzen zaigu ele txarrak erraitea. Auzapez jaunaren ustez, gorabehera hori konpondua da.

- N. Aiçaguerre andereak Paskaleku auzoko etxolaren desegiteko polizia indarrak igortzea aipatzen du.

Auzapezak zehazten du bezperako arratsean jakin duela Suprefetak erranik. Erabaki hartua izan da auzoko herritar batek jendarmerian pleinta bat egin baitzuen. Lurraren jabe den RFFek seinalatu du ez zitekeela lursail hortan beren ardurapean den eraikinik izan. RFFek okupatzaileak indar publikoaren esku sartzearekin kanporatzea lortu zuen. Baionako arrondizamenduko konpainiako komandanteak du baliabide hori plantan ezarri, eta horren berri dut ukan bezperako arratsean. Herria ez da batere inplikaturik, eremu pribatu bat da.

- Ph. Bacardatz jaunak mikroen eskuratzea zertan den galdegiten du.

F. Bardin jaunak erantzuten dio aurrekontua ukan berri duela, eta prezioa negoziatuko duela. Aurrekontua onartu ondotik, mikroak plantan ezarri aitzin hamabost bat eguneko epea izanen da.

- V. Goytinok 2014ko urriaren 11n 10:30etan larunbatez etxebizitzez hobekuntzaz (performantzia energetikoak, diru aurrezteak eta lurrezko estaldurari buruzko tailer bat) iraganen den gertakari bati buruzko afixa bat aurkezten du.

Bilkurari 22:40etan bururapena eman zaio.